Editorial

# Bakerako mendiak

*Gaurkoan, iraupen handiko ibilaldiei eta mendi-lasterketei buruz hitzegiteko nintzen, eta honelako gauzak atsegin ez dituztenen gainean ere, eta mendian guztiok dugula lekua esateko nintzen eta horixe dela izan ere mendiaren handitasuna, tolerantziaren eta bakearen erreinua baita, eta puntu honetara ailegatu naizenean geratu egin naiz eta pentsatu dut ibilaldiei eta lasterketei buruz beste egunen batean hitzegingo dudala.*

*UIAA (Alpinismoko Elkarteen Nazioarteko Batasuna) delakoaren erakargarririk handienetarikoa etsi-etsian bakearen eta herrien arteko konkordiaren alde egiten ari den kanpaina da, eta berau da izan erakunde honetan zuzenenan sartu eta gero ilusiorik gehien ematen digun aldeetariko bat. Zeren eta konbentzituirk daude mendizaletasuna tresna indartsua izan daitekeela bake hori lortzeko, ekintza positiboak direla medio.*

*Bakea bilatzea ez da "gerrari ez" esatea soilik. Ez da soilik petrolioaren munduko merkatua kontrolatzeko gerraren jauntxoek planifikatu eta aldez aurretik luzaroan aldarrikatu ondoren burutzear dagoen nazioarteko eraso honek suposatzen duen delituaren aurrean salaketa egitea. Plan horrek, finantza-analistek estudiatu dituzten eszenatokien artean onenean kokaturik, gerra "moderatua, laburra eta garbia" lortuko du, baina bere arduradunak ez dira asko larrituko "biztanleria zibilean gerta litezkeen nahitaezko aldeko ondorio"-etaz eta ez arabiar munduan sor litekeen herrialde-anabasaz ere. Eta hau danau, mundu osoa, historiako lehen erantzun globalizatuan, aho batez EZ esaten ari denean.*

*UIAA delakoak areagotu egin ditu bere ahaleginak azken bi urteotan ekintza konkretuak artikulatzen herrien arteko lankidetzari eta, garapen sostengarria bilatuz, ingurugiroaren babespenari buruzko baloreak mundu osoan zehar barreiatuko dituen tentua sortzen laguntzeko eta nazioarteko elkarbizitza bultzatzeko.*

*Martxan jartzen ari dira proiektu erakargarri batzuk, Mugen gainetiko Parke Nazionalekin erlazionaturik daudenak. Afrikan, 2001ko ekainean, Drakensbergeko mendietako Sehlabathebe parkea kasu, Lesotho eta Hego Afrikako lurraldeetan. Europan, Frantzia, Italia eta Suitzaren arteko Mont Blanceko parkea, zeina 2004an Greziako Joku Olinpikoetan azaldua izango baita, horrela turistikoki lar ustiatu den ingurune hori errekuperatzeko balioko duelarik, eta Balkanetako Bakearen Parkea, Albania, Montenegro eta Kosovoren artean (nazioarteko gonbidapena egin du UIAAk han, hurrengo uztailean, 12 egunetako trekkinga egin nahi dutenentzat). Eta batez ere Asian, non bakerako eremu babestu bat sortuko den Sianchen glaziarrean, Karakorumean, India eta Pakistanen artean, munduko glaziarrik handiena eta zeinean historiako gerra luzeena, garaiena eta hotzena gertatu baita.*

*Ekimen batzuk daude zentzu honetan Nepalen, Everest lehen aldiz igo zenetik 50 urte betetzear daudenean. Lehena, su-etenaren aldarrikapena eta gerrilla maoistaren eta Nepaleko gobernuaren arteko elkarrizketa da. Beste bat, Hillaryren ondoretasunarekin dago erlazionaturik, sherpen herriaren garapenera zuzendua (30 eskola, 2 aireportu, 2 ospitale, 11 osasun-zentru eta beste proiektu asko; hauek pentsaerazten digute Hillaryrentzat Everest igotea baino ez ote zen izango garrantzitsuagoa gero sherpen alde egin zuena). Badago ere Everest Bakearen alde 2003 deritzon proiektua, tolerantzia erlijiosoa bilatzen duena, IIPTk bultzatua, nazioarteko beste turismo-erakunde bat bakearen alde.*

*Behar bada, ekintza sinboliko erakargarriena UIAA eta UICN (World Conservation Union) direlakoek burutu zuten joan den urtean, mendizaletasunaren nazioarteko urtean. "Summit Team" deitu zioten ekimenari: Suitzako Alpeetan, Monch mendia barne zelarik, batera egin zuten igoera bat eliteko mendizale indiarrek eta pakistaniarrek, betidanik etsaiak izandakoak, eta horretarako Jaime Andrewren figura karismatikoarekin lagundurik egon zirelarik (eskalatzaile eskoziar honek, 1999an, bi eskuak eta bi oinak galdu zituen Mont Blanceko mendimultzoan pairatu zituen izozteak direla eta).*

# Montañas para la paz

Hoy iba a hablar de las marchas de larga duración y de las carreras en el monte y de aquellos a los que no les parece bien estas cosas y de que curiosamente en el monte cabemos todos y de que precisamente esa es la grandeza del monte porque es el reino de la tolerancia y de la paz, y cuando he llegado a este punto me he quedado aquí y he pensado que hablaré de las marchas y de las carreras otro día.

Uno de los mayores atractivos de la UIAA (Unión Internacional de Asociaciones de Alpinismo), y es uno de los aspectos que más ilusión nos hace al habernos integrado directamente a ese organismo, es la decidida campaña que está realizando a favor de la paz y la concordia entre los pueblos. Y es que están convencidos de que la afición al alpinismo puede ser un potente instrumento que ayude a conseguirlo, por medio de acciones positivas.

La búsqueda de la paz no es sólo un NO a la guerra. No será sólo la denuncia al delito de agresión internacional que está a punto de ejecutarse tras una larga crónica de ataque anunciado, dentro del plan de los señores de la guerra por controlar el mercado mundial del petróleo y que, en el mejor de los escenarios estudiados por los analistas financieros, conseguirá una guerra "contenida, breve y limpia", en el que no pueden preocuparse mucho de los "efectos colaterales inevitables sobre la población civil" y el posible caos regional que se produzca en el mundo árabe. Y ello, en un momento en el que toda la gente del mundo dice unánimemente que no, en la primera respuesta globalizada de la historia.

La UIAA ha redoblado en los dos últimos años sus esfuerzos por articular actividades concretas que promuevan la convivencia internacional y ayuden a crear un estado de ánimo que difunda por el mundo estos valores de cooperación entre países y protección al medio natural buscando el desarrollo sostenible.

Se están poniendo en práctica unos cuantos proyectos atractivos relacionados con la idea de los Parques Nacionales Transfronterizos. En África, en junio de 2001, el parque de Sehlabathebe en las montañas Drakensberg, en tierras de Lesotho y Sudáfrica. En Europa el parque del Mont Blanc entre Francia, Italia y Suiza, que se presentará en los Juegos Olímpicos de Atenas en 2004, intentando recuperar un entorno demasiado explotado turísticamente, y el Parque de la Paz de los Balcanes, entre Albania, Montenegro y Kosovo (hay una invitación internacional en la UIAA para los que quieran hacer allí un trekking de 12 días en el próximo julio). Y, sobre todo, en Asia el de la creación de un área protegida para la paz en el glaciar de Sianchen, en el Karakorum, entre India y Pakistán, el mayor glaciar del mundo y en el que ha tenido lugar la guerra más fría, más alta y más larga de la historia.

Hay varias iniciativas en este sentido en Nepal, al filo del cincuentenario de la primera ascensión al Everest. La primera es la declaración de alto al fuego y diálogo entre la guerrilla maoista y el gobierno del Nepal. Otra está relacionada con el legado de Hillary, para el desarrollo del país de los sherpas (las 30 escuelas, 2 aeropuertos, 2 hospitales, 11 centros de salud y otros muchos proyectos, que hacen a algunos pensar que para Hillary, más importante que subir al Everest fue lo que hizo luego por los sherpas). También hay un proyecto Everest por la Paz 2003, en busca de la tolerancia religiosa, promovido por la IIPT, otro organismo internacional de turismo por la paz.

Quizá la actividad simbólica más llamativa la desarrollaron entre la UIAA y la UICN (World Conservation Union) el año pasado, el año internacional del montañismo. Fue lo que llamaron el "Summit Team", una ascensión conjunta en los Alpes suizos, incluyendo el Monch, de montañeros de élite indios y paquistaníes, secularmente enemigos, acompañados por la figura carismática de Jaime Andrew, el escalador escocés que en 1999 perdió los dos manos y los dos pies, como consecuencia de congelaciones en el macizo del Mont Blanc.

**Txomin Uriarte**